



Bergaran, 2023ko azaroaren 8an ondokoak bildu dira:

ALDE BATETIK, Gorka Artola Alberdi, Bergarako Udaleko Alkate Jauna eta bilera honetan erakunde honen ordezkaritza duena.

BESTETIK, Nagore Murua Uria, 15.390.732-Y NAN zenbakiduna eta Maria Lagundia Ikastolaren ordezkartzan.

Bi aldeek elkar behartzeko ahalmena aitortu eta ondorengo

ADIERAZI DUTE

LEHENENGOA: Bergarako Udalak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1995 Legearen 25-1 artikulua arabera, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak asetzen lagunduko duten jarduerak sustatu eta zerbitzu publikoak eman ditzakeela.

BIGARRENA: Euskadiko 2/2016 legeak 17 artikuluan udalerrien eskumen propioak zehazten dituela eta zehaztu zein gaietan dituen eskumena. Horien artean, 17 puntuan kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea.

HIRUGARRENA: Mariaren Lagundia ikastetxeak, bereak dituen instalazioen artean, Kirol instalazioen jabe dela.

LAUGARRENA: Bergarako Udalak, goian aipatutako instalazioak eskola orduz kanpo erabilera publiko bat izatea nahi duela eta Mariaren Lagundiak, helburu horrekin bat eginda, prest dagoela erabiltzen uzteko hainbat baldintzekin, eta bi aldeek alde bakoitzaren eskubide eta betebeharrak hitzarmen batean jasotzea komeni dela ulertzen dutela.



Hau dela eta, alde biak, hitzarmen hau sinatzen dute, ondorengo KLAUSULEKIN

LEHENENGOA: Mariaren Lagundia ikastolak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

- Kanpoko instalazioak zabalik mantentzea klase ordutik kanpo, eskola kirolarentzat eta gainontzeko herritarrentzat erabilera libre izango delarik.

Erabilera libreak, honako ordutegi hau izango du:

-Lanegunetan:

a) Urriaren 1etik apirilaren 30era, arratsaldeko 19:30ak arte.

b) Maiatzaren 1etik irailaren 30era, arratsaldeko 20:30ak arte (uztailaren 15etik abuztuaren 31ra izan ezik).

-Larunbatetan:

Urte osoan goizeko 8:30etatik arratsaldeko 19:30ak arte.

- "Goiko Gimnasioa" eta aldagelak udalari erabiltzen uztea eskola orduetatik kanpo eta eskola kirola bukatu ondoren, Bergarako klubak jardueretarako eta Udal Kirol Zerbitzuak antolatzen dituen ekintzetarako, honako ordutegi honekin eta irailatik ekainera:

-Lanegunetan: gaueko 9:30ak arte.

-Larunbatetan: goizeko 8:30etatik 20:30ak arte.

BIGARRENA: Bergarako Udalak, bere aldetik honako konpromiso hauek hartzen ditu:

a) Udaltzainak arduratuko dira astelehenetik larunbatera kanpoko instalazioetako atea ixten.

b) Gimnasioaren eta aldagelen atea azken orduan erabili ostean ixten.

c) Hilero (abuztuan izan ezik) 1000 euroko aportazioa egingo dio Mariaren Lagundia Ikastolari.

d) Kanpoko instalazioetan makina garbitzailea pasatzea astean behin.

HIRUGARRENA:

a) Erabilera arruntagatik izan ezik, kanpoko instalakuntzetan sor litezkeen kalteak Udala eta Mariaren Lagundia Ikastetxearen artean erdibana ordainduko dira. Horretarako, hausturaren bat gertatzen den bakoitzean, udaltzainen parte osatuko da. Urte amaieran ikastetxeak udalari entregatuko dizkio parteak kalteen faktura zerrendarekin batera.



Bergarako
Udala

b) Gimnasioa eta aldagelak erabiltzean sor litezkeen kalteen erantzule instalazioak erabiltzen dituzten taldeak izango dira.

LAUGARRENA:

Hitzarmen hau indarrean egongo da sinatzen denetik hasita 4 urte osatu arte. Dena den urte bakoitzaren amaieran bi aldeetako edozeinek hitzarmen hau bukatutzat eman izango du, beste aldeari hiru hilabeteko aurrerapenaz adierazita.

Eta adostasuna adieraziz, bi aldeak agiri hau bikoiztuta sinatzen dute goian aipatutako toki eta egunean.

GORKA ARTOLA ALBERDI

NAGORE MURUA URIA

GORKA
ARTOLA
ALBERDI -
72581398E

Digitalki sinatuta
norenandik: GORKA
ARTOLA ALBERDI -
72581398E
Data: 2023.11.13
12:58:09 +01'00'

15390732Y
NAGORE MURUA
(R: R2000181D)

Firmado digitalmente por
15390732Y NAGORE
MURUA (R: R2000181D)
Fecha: 2023.11.08
10:01:48 +01'00'

